

Ageriko bilkura

Baionan, 2011ko abenduaren 16an

AGOSTI XAHOREN BIGARREN MENDEURRENA DELA ETA

Baionan, 2011ko abenduaren 16an, IKER zentroan, arratsaldeko 17:00ean, Euskaltzaindiak Agosti Xahoren bigarren mendurrena gogora ekartzeko asmoz, Ageriko bilkura egin du.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Xabier Kintana idazkaria, Andres Iñigo Jagon sailburua, Sargario Aleman, Jean Haritschelhar, Beñat Oihartzabal, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen eta Ana Toledo.

Euskaltzain urgazleak: Patri Urkizu.

Erramun Osa idazkariordea.

Euskaltzaindikoko langileak: Annie Etxeberri.

Ezin etorria: Andres Urrutia –euskaltzainburua–, Aurelia Arkotxa –buruordea– eta Xarles Videgain euskaltzain osoak.

Xabier Kintana idazkariak sarrera-hitzak esan ditu. «Izan ere, Andres Urrutia euskaltzainburua eta Aurelia Arkotxa buruordea Bordelen daude, okzitaniar hizkuntza jagoteko sortzekoa den APORLOC izeneko elkartearen sortze-ekitaldian».

Euskaltzaindiaren idazkari akademikoak Agosti Xahoren bizitzari buruz zenbait jakingarri azaldu ditu. Era berean, haren ekarpenak eta haren garaikideek euskarari buruz zuten kezka ere izan ditu mintzagai.

Horren ostean, Jean Haritschelhar euskaltzainari hitza eman dio. Honek, «Euskal Herria Xahoren begietan» izenburua daraman hitzaldia irakurri du. Mintzal-

dian zehar Agosti Xahok euskararekin izandako lotura, garai hartako Euskal Herriari buruz zuen ikuspegia eta haren ekarpenak jorratu ditu xehetasun handiz.

Haren ondoren, Patri Urkizu euskaltzain urgazleak eta Literatura Ikerketa baztordeko kideak hartu du hitza, «Agosti Chahoren obraz eta bere eraginaz» hitzaldia emanez. Bere mintzaldian zehar hainbat testu eta irudi baliatu ditu, besteak beste, Agosti Xahoren obra eta izandako eragina erakusteko.

Amaitzeko Xabier Kintanak gogora ekarri du Jean Haritschelharrek eta Patri Urkizuk eman dituzten hitzaldiak Akademiaren *Euskera* barne-agerkariaren ikerketa zenbakian argitaratuko direla, 2012ko uda aldean.

Eta besterik ez dela, bilera bukatutzat eman da arratsaldeko zazpiak direnean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria